



> Emakumea eta kartzela



GAUR8

Espetxeen izaera patriarkalak preso diren emakumeengan dakarren zigor erantsiaren eta preso senide diren emakumezkoek beren gain hartzen dituzten zaintza lanen inguruko irakurketa plazaratu du



Sare Herritarrak bideo baten bidez. Bertan salatzen denez, kartzela patriarkala da. «Jendartea gizon eta emakumeen arteko botere harremanetan antolatuta dago. Patriarkatua instituzio guztietan dago; fa-

milia, hezkuntza, lan merkatua, komunikabideak... eta kartzela ez da salbuespena».

Era berean, preso diren emakumeek pairatzen duten zigor erantsia jartzen du mahaiaren gainean; batetik, emakume delitugileak patriarkatuak agindutako rolak hautsi dituelako –sistemaren begietara ez da izan esanekoa, zaintzailea eta zintzoa–, eta, bestetik, Estatu frantsesean eta Estatu espainolean emakumeentzako hiruna kartzela soilik daudelako. Eta horrek, derri- gor, urruntzea dakar. Emakumezko euskal preso politikoak batez beste Euskal Herritik 680 kilometrora daude.

Azpiegiturei begiratuz gero, panorama ez da hobe. Gizon- nezkoentzat pentsatutako kartzeletan, soberan gelditzen den tokian daude emakumeen kartzelak. Beraz, azpiegituren eskasia nabarmena da.

Senideren bat preso duten emakumeen egoera ere ez da ona. Normalean, preso dagoenak behar dituen zaintza lanak beren gain emakumeek hartzen dituztelako.



> Viñaspre, ikastetxean ere izar

Iñaki Viñasprek joan den aste- buruan jantzi zuen Arabako bertsolari txapelketako txape- la Gasteizko Printzipal antzo- kian. Ospakizunak ospakizun, astelehenean lanera bueltatu zen Iñaki Viñaspre, irakasle den Angel Ganivet eskolara. Eta sekulako sorpresa prestatu zioten bertako ikasleek, futbol izar baten pare hartu baitzu-



ten, «Iñaki, Iñaki!» oihu artean eta txaloka. Sare sozialetan ze- resana eman duen bideoak ja- sotzen du hain une ederra.

Txapeldunak mikroa hartu eta bertso batez eskertu zuen harrera beroa eta klasera bida- li zituen ikasleak bueltan, hain berea duen umore zorrotzez. Benetan ederra Arabako txa- peldunak bizitakoa.



> Korrika

Euskal Herriko mugetatik kanpo hasi ziren giroa berotzen; Alemania, Erresuma Batua, Polonia, Argentina, AEBak, Txile, Shangai, Sydney... Berriz ere giharra erakutsi du euskal diasporak eta urrutira iritsi da Korrikaren pausoen oihartzuna.

Baina Korrika ofiziala, handiena, ostegunean abiatu zen Garestik. 11 egunez Euskal Herria alderik alde eta arineketan igaro ostean, Gasteizen amaituko da



apirilaren 14an. Pentsatzekoa denez, sare sozialetan sekulako presentzia izango du hain txikia eta aldi berean hain erraldoia den ekimenak. Pauso bakoitzak dauka garrantzia, pauso bakoitzak markatzen baitu Korrikaren taupada. Eta pausoz pauso osatzen den kateak, bideak, burrunbak, herri oso bat astintzen dute 11 egunez. Astinduak euskarari dagokion lekua emango ote dio...


> Fairy

Sant Fruitos de Bages herriko udaletxean dagoeneko ez dau de zintzilik ez estelada ezta lazo horiak ere. Hauteskunde Bartzordearen agindua betetzea erabaki du Udalak eta estelada eta lazo horiak zeuden tokian, Fairy garbigarriaren kartelak jarri ditu zintzilik. “*Tu ja m’entens*”, esaldia jarri dute kartelen alboan. Alegia, “zuk ulertzen didazu”. Horrez gain, beste pankarta erraldoi batek salaketa garbia egiten du udaletxearen fatxadatik: “Udalbatzak botoen



%85ekin onartutakoa erretiratu dugu”.

Fairy botilek erreferentzia zuzen-zuzena egiten diote Gobernu espainolak Katalunian duen ordezkariak, Enric Millokk, Kataluniako prozesu subiranistaren kontrako epaiketaren esandakoa. “Fairyaeren tranpa” aipatu zuen Millokk. Horren arabera, poliziei eta guardia zibilei garbigarriarekin egin zieten eraso; Fairy garbigarria lurrera bota eta poliziak irristatu eta erortzea omen zen tranparen xedea.



> Bular neurria

«Ezinbesteko baldintza: 95 edo 100 bular neurria izatea». Era horretan hasten da ekitaldiatarako azafatak eskaintzen dituen enpresaren lan eskaintza. Egunotan Nafarroako Los Arcos herrian dagoen auto zirkuituan jokatu den lasterketarako azafata bila dabilta nonbait eta garbi zehaztu dute emakume horiek bete behar duten baldin-



tza garrantzitsuetako bat. Irargariak hautsak harrotu ditu han eta hemen. Zirkuituko arduradunek adierazi dute ez dutela inolako zerikusirik iragarki horrekin eta parekidetasunaren aldeko aldarria egin dute komunikatu batean. Nafarroako Gobernuak gogor gaitzetsi du iragarkia eta neurriak iragarri ditu.